

Etahalaizan bazen ~~a~~

Koldo Leniz Ortuondo eta Aitor Iturbe

sar dadila

Se non è vero, è molto ben trovato II. atala



K.WICKEN-LEINTZ

Gure aldizkariaren bigarren zenbakia irakurri duzuenok, badakizue kolaboratzaile anonimo bat izan genuela artikulu misterioitsu bat burutzeko.

Ez genekien nor zen, baina gure aldizkariako azaleratu zuen trama edo konspirazio historikoa sinesgarria iruditu zitzaigun. Kontu handiarekin argitaratu genuen, gure irakurleei aurretiaz abisatuz ez genekiela “vero”, hau da benetakoa, edo “ben trovato”, egiantzekoa zen.

Gaztelaniaz idatzi zigun gutun luze hartan beldurtuta agertzen zen beren ustezko aurkikuntzarekin. Izututa, uste baitzuen metalzko zilindro hartan aurkitutako dokumentuak, bere bizia arriskuan jar zezakeen konjurazio baten parte zirela.

Arrazoa zuen! Aldizkari hau nahi genuena baino pixkat beranduago atera izanaren arrazoa oraintxe kontatuko dizuegun hau izan da: duela aste gutxi Lekeitioko parrokiako Santa Anaren kaperan, herriaren zalaparta eta eskandalurako, erailda aurkitu zuten gorpua, gure laguntzaile anonimoarena zela jakin dugu. Atestauak dioenez, bere izena K.W Leintz da.

Kolaborazio hartan, Leintzek aitortu zigun Jesusen Lagundiko fraidea zela, hau da jesuita. Esan zigun, adinekoa bazen ere, bere ikerketarekin jarraituko zuela kosta ahala kosta, azkeneko arnasara arte. Elizarentzat eskandalu

izugarria izan zitekeen ustezko gertakari baten berri eman zigun. Uste zuen amarru edo azpijokoren bat egon behar zela guztiaren atzean.

Zelan izango zen egia Loiolako Iñigo Deunaren benetako aita izatea Errando II. Aragoikoa, hau da, Fernando “El Católico” izenez ezagutzen dugun erregea? Gaur egun normaltzat duguna, XVIII. gizaldian eskandalu izugarria



Wicken-Leintz Baroia Enperadoreen ezkontza egunean. Eskuman, zibilez jantzita etiketazko jaka batekin

izango zen, KATASTROFEA. Nor eta Inazio Deuna sasikumea!

Harira bueltatuz, esku artean duzuen aldizkaria guztiz maketatuta eta inprentara bidaltzeko prest geneukanean, Santa Anaren kaperako gertaera larriak eztanda egin zuen Lekeitioko herrian. Hedabideek laster batean isildu zuten kasua, baina “Lea-Artibai eta

Mutrikuko NICASO” astekarikoeak, batik bat Esther Murelaga erreportariak, ez zuten etsi. Badirudi kazetarien jarrera honek baduela izan astekariaren itxierarekin zerikusirik.

Eraiketaren bezperan, erredakzioaren atean gutun-azal bat utzi ziguten. Barruan, artikulu honetan argitaratuta dituzuen zirriborro, idatzi eta apunteak. Azalean ohartxo hau idatzita:

Solo me queda confirmar lo que ya doy por hecho. Si no recibieran estos documentos de mis propias manos, sepan que habrá sido por una razón muy grave, no descartando el propio asesinato.

Quedo en Paz. A todos mi saludo fraterno y mi bendición

K.W. Leintz

Orain badakigu gure artikulgile anonimoaren izena. Baina ez hori bakarrik: Alejandro Goikoe-txea medikuak egindako autopsiako datuen arabera, Leintz jauna kolpez eraila izan zen, ez zen istripu bat izan. Bestalde, Udaltzaingoan dauzkagun informatzaileek kontatu digutenarekin, badaukagu

Leintz jesuita misterioitsuaren filiazioa.

Aita K.W.Leintz S.I. (Societas Iesu) jaunaren izen osoa, Karl Wicken Leintz Goitia zen (1939-2018).

Bere aita Schmucl Karl Von Leintz (1887-1942), Wicken-go azken Freiherr-a (baroia) izan zen. Zita enperatrizarekin etorri zen Lekeitiora; bere gortearen parte zen.



Enperadoreen atzeko aldean, Wickengo Baroia, aurrean Otto printzea hile luzearekin

Wickengo baroia, Carlos I enperadorearen lagun mina zen. Adiskidetasun hori aspalditik zetorren, heziketa militarra elkarrekin egin baitzuten 10 urtez. Schmuellen jatorri judua ez zen eragozpena izan adiskidetasun hori sendoa izateko, baina enperadoreen agerraldi publikoetan bere papera oso diskretua izaten zen, guztien gustukoa ez baitzen, nahiz eta bi belaunaldi lehenago katolikotasuna besarkatua zuen familiak.

Carlos eta Zitaren seme nagusia, Otto Habsburgokoa, jaio zenean, enperadoreak haurraren mentore nagusi izendatu zuen bere laguna. Zorionean eta ezbeharrean, Schamuel Karl Von Leintzek bere eginkizuna zintzo eta leial bete zuen utzi zioten arte.

Lekeitiora etorri zirenean, oraindik kargu hori zeraman ofizialki baina gorteko elementu batzuen antisemitismoak gutxika-gutxika bere kargutik baztertu zuen. Zita, Carlos I.aren alarguna, konturatu bazen ere, ez zuen ezertxo egin bere senarra zenaren lagun minaren egoera konpontzeko. Kronikak diotenez Kai-Gane tabernan ematen zituen orduak bertako leihotik Uribarren Jauregirantz begira, egunero koñak botila oso bat irensten zuen bitartean.

Leintz-Goitia familia

1924ko udan aldatuko zen baroiaren egoera. Neskame berri bat hartu zuten Karlota printzesaren kargu egin zedin. Karlota 1921ean jaioa zen eta txikiena, Isabella, 1922an, lan handia zen dontzeila batentzat neskato bien kargu egitea. Endredua zen Austriatik sehi berri bat ekartzea. Garavillatarren aholkua jarraituz, Le-

keitioke Antigua Goitia Urkiaga (1904-1973) Uribarren jauregian azaldu zen urte hartako ekainaren 8an dontzeila lana betetzeko prest.

1929ko urtarrilean, Zita eta bere gorrea Lekeitiotik joan baino lehenago, ia bost urteko ezkongai-aldia egin ondoren, Lekeitioke Andre Maria Jasokundearen basilikan ezkondu ziren Schmuel Karl Von Leintz eta Antigua Goitia Urkiaga.

Beti enperadoreari emandako hitza bete nahirik, Zita eta bere familia Belgikako Ham



Antigua Goitia Urkiaga



Ezkerrean, K.W. Leintz (Lovaina, 1955). 16 urtekin

Steenorkkerzeel-go gazteluan finkatu zirenean, Bruselatik ez oso urruti, gure baroiak Lovainan finkatu ziren, Otto-rengandik gertu egoteko asmoz.

Aurrerantzean zer gertatu zen ez dakigu oso ondo. Ez behintzat orain arte kontatu ditugunen zehaztasunarekin berba egiteko moduan.

Dakiguna da 1940an, Zitak handik alde egin zuenean, Von Leintz-Goitiatarak Lovainan geratu zirela. Ordurako, Kurik-eko gure kolaboratzaile misteriozua, K.W Leintz jaioa zen (1939-06-08). Ezin dugu ziurtatu baina dirudienez naziek Schmuel Karl baroia atxilotu zuten, baina bere goi-mailako posizioa kontuan hartuta, Breendonk-eko konzentrazio-esparrura eramane zuten, non pneumoniaz 1942an hil zen.

Karl Wicken Leintzek Lovainako Unibertsitate katolikoan egin zituen bere abadetza ikasketak. Ondoren, bere biografia moztu egiten da, hutsune handi bat dago Lekeitioan agertu zen arte, Kurikeko bigarren zenbakian kontatu genizuen modura.

Ez dakigu zuek ere ez dakizuenik duela aste batzuk Lekeitioke elizan hilik agertu zen arte.

Ondoren, utzi digun jarauntsia...


Erredakzioaren oharra

Azken orduko berrien arabera, Benito Ansola Erkiaga abadea atxilotu dute Santa Anaren kaperan gertatutako erailketaren susmagarri bezala

Oraindik Udaltzaingoaren ikerketa lanak amaitu gabe daude. Gure informazio-iturriek diotenez ez da batere erraza izango krimenaren benetako zergatia argitzea.

Gure betebeharra daukagun informazioa zabaltzea da. Ezin izan dugu gehiago atzeratu eskuetan duzuen aldizkariaren argitaratzea. Ez zaigu gustatzen espekulazioekin eta usteekin jokatzea, datuekin eta objektibotasunarekin baizik. Horregatik erabaki dugu Leintz defuntuaren zirriborroak idatzita zeuden bezala uztea. Aldamenean jarri dizkiegun notak gure interpretazio hutsa besterik ez dira, baina ez dugu uste egiatik oso urrun gaudenik.

Atentzio handia eman digu sasi-lekeitiarrez idatzita daudela ikusteak, aurreko Kurikean gaztelaniaz idatzi baitzuen. Azalpen bakarra aurkitu diogu: K.W. Leintzek bere amarengandik ikasi zuen euskara ez zuela ahaztu. Zer modu hoberik bere ikerketak eta idatziak sekretuan gordetzeko, beren ingurukoentzat hain ezezaguna eta itxia zen hizkuntzan baino.



NI CASO

S U S E S O S Y A C A E S I D O S

VI. urtea . 3. zeb. - Lekeitio, 2018ko otsailak 29 Prezioa 3 pezeta.

ONDARROA

KORTXELEKO MAMUK ARRISKUAN

Bart gauean Santa Maria elizan lapurrak sartu ziren. Antza denez, ez zuten ezer eraman, baina Kortxeleko mamutako bat agertu zen apurtuta, hain zuzen ere, Leokadi famatua. Herritarrek hunkituta daude. Nahiz eta polizia ez duen baztertzen hipotesirik, lekeitiarren eskua antzematen da.

(22. orrialdean)

HILTZAILEAREN BILA

ESKANDALUA LEKEITION SANTA ANAKO ERAHILKETA MISTERIOTSUA

ELIZA NAGUSIAN GERTATUTAKO SAKRILEGIOAREN EGILEA ASKE DABIL

E. M. S.-ren erreportaia

Oraindik ez dakigu norena den joan den otsailaren 28an Lekeitioko Andra Mariren Jasokundearen elizako Santa Ana kaperaren aurkitutako hilotza. Hildakoaren nortasuna ez dakigun arren, badakigu heriotza ez zela berezkoa izan. Alejandro Goikoetxeak eta Joaquin Abetal Palacio medikuek egindako autopsiaren arabera (lortu dugun dokumentuaren filtrazioaren arabera, behintzat), hildakoa errosario batekin ito zuten: "... muerte por asfixia provocada por estrangulamiento (...) un rosario de cuentas de piedra (gatas de Brasil) enroscado en su cuello...".



Hildakoaren alboan aurkitutako tutu metalikoa. Photo: Villalba Press



Benito Ansola abadea, Alejandro medikua eta I aki aguzil ohia gorpuaren aurrean. Atzekaldean Santa Ana kapera. Photo: Villalba Press

ERAILEA ASKE DABIL BELDURRA ZABALDU DA HERRIAN

(1. orr. dator)

Gure ikerketen arabera, gertakizunaren kronologia eta zirkunstantziak hauek dira: 2018ko otsailaren 28an, sekulako elur-ekaitza bota zuen Euskalerriko kostaldean. Lekeitioko eliza irekita zegoen bisitarientzat, baina eguraldi-baldintzak medio, ez zen inor espero egun hartan.

Hala ere, 12 urteko J.G.L. gaztea elizan sartu zen, Antiguako Amaren kaperara joateko. Kaperan bertan zegoen artean, burdinezko atea zabalteak egiten duen kirrinka ezatseginak atentzioa eman zion, baina zalaparta handi bat eta ohiu batzuk entzun zituen arte ez zen mugitu lekutik. Izkanbilaren lekura hurbildu zenean, bi gizon ikusi zituen lurtean, bata bestearen gainean. Mutikoa, korrika laguntza bila atera zen kalera eta Erkiaga tabernako argiak piztuta ikusi zituenean bertara abiatu zen. Bi bezero baino ez zeuden taberna barruan, baina, suertez, ezin aproposagoak gertaera hartarako: I aki Laka udaltzain ohia eta Alejandro Goikoetxea sendagilea.

Une berean, Esther Murelaga kazetaria kai alde-ra zihon itsas-ertzeko paisaia elurtuari argazki batzuk aterako asmotan. Talde bitxi hura elizarantz korrika ikusi zuenean, bere kazetari-sudurra ez ohiko zerbait gertatzen zela abisatu zion. Aurkitu zuenak harrিতa utzi zuen. Alejandro medikua, lurtean luze zegoen gorpuari masaje kardiakoa behin eta berriro ematen aritu zen, lan horretan gogoz saiatu zen arren, etsi egin behar izan zuen eta pulsurik ez zuela onartu. Benito Ansola abadea, lurtean etzanda zegoen gorpua bedeinkatzen ari zen. Anbulantzia deitu ondoren, I aki Laka hilketaren eremua babesten ari zen inor sartu ez zedin lekua "kutsatzera" ikerketa orduko. Jubilatuta egon arren, I akik barruan

duen udaltzaina ez du galdu. Artikulu hau idazten ari zaizuen kazetari hau, saiatu zen gertatutakoa dokumentatzeko argazkiak ateratzen baina ezin izan zuen krimenaren eszenario hartara gehiago hurbildu. Zorionez, lekuko zuzena elkarrizketa-tzea lortu zuen.

Atentzioa eman zigun biktimak eskuan indartsuki helduta zituen paper edo dokumentu batzuk. Lurrean, gorpua aldamenean, zegoen metalezko tutu batetatik ateratakoak ziruditen (hain justu KURIK aldizkariaren artikulu batetan agertzen zenaren tankerakoa). Atzo goizekoak ez zirelakoan gaude.

Momentuz hau da esan dezakegun guztia. Erailea bat aske dabil Lekeition, ez da ez, berri lasaigarria.

LEKUKO ZUZENAREN HITZAK: "LEHENENGO BIDAR HILKETA BAT IKUSTEN DOTENA, BAINA IA ENTERA BE EZ NITZAN EGIN, PELIKULETAKUAK DOTORIAGO DIRA".

NICASOK DU ELKARRIZKETA HAU EXKLUSIBAN J.G.L. hamabi urteko mutikoa dugu Lekeitioko Parrokiako Santa Anaren kaperan gertatu zenaren lekukoa. Jakin dugunaren arabera Benito Ansola abadea ere bertan egon zen, baina ez digu nahi izan adierazpenik egin.

KAZETARIA: Nolatan joan zinen zu elizara otsailaren 28an?

J.G.L.: Edurra izan zan eta ez genduan euki eskolarik. Edur-bolakina gerra bi egin genduzan



Esther Murelaga J.G.L. testigua elkarrizketatzen. Photo: Villalba Press

hondartzan eta gero kontzjopera jua ginian deskantsaten. Athletic-en tenporada eskasari buruz berbetan hasi ginian eta niri bururatu jaten Antiguako Amari kandelila ipintxen juatia, nire amuma biak eitzen eben modura, jokua hobetzeko laguntza eske.

KAZETARIA: Orduan ez zinen bakarrik joan?

J.G.L.: Bai, ze azkarian bestiak ez zirian etorri. Ostarabe jua zirian bolen gerria eitzen hondartzara. Esan eben ez eukela dirurik kandelila bizuteko. Ni hotz nintzan, asiske elizan sartu nitzan. Ilun eguan barruan, baina aitzitxa bat sartzen ikusi neban lez, lasaitxu egin nitzan.

KAZETARIA: Esango zenuke hilketaren biktima zela gizon hura?

J.G.L.: Bai bera izan zan ze galdetu egin eustan ia zergaitxik nenguan han. Erantzun neustanian, buruko uliak igurtzi eustazan eta euro bat emon eustan. Abadien modura eitzen eban berba, astiro eta suabe. "Kinder!" esan eban eta barrurantz jua zan. Berak pentsako eban Kinder txokolatiniagaitxik berbetan eguala pentsako nebala, baina badakitx alemanez "kinder" berbiak "umiak" esan nahi dabela.

KAZETARIA: Zer egin zenuen orduan?

J.G.L.: Amabirjinien txiringitora jua nintzan. Nik 20 zentimo bakarri neukazan, baina pentsa neban euro bat botaten baneban kandelila bizuteko, amabirjiniak kasu gehijago egingo eustala. Pentsa neban beste hogeit zentimuakin urtetan nebanian txikle bat erosiko nebala, "sabor mel n". Kandelila biztuten nenguan artian burdinazko ate bat zabaltzen entzun neban, Drakulen pelikuletako kastilluen moduko zaratia, baina

"Donbenito" pasaten ikusi neban eta ikaria pasa jaten. Ia ke euro bat bota neban, pentsa neban pizkatxu bat gehijago eskatzia Antiguako Amari, eta eskatu neustan kentzeko Trump Estatu Batuetako agintetik, ze esaten dau ez dagola klima aldaketarik eta dana kutxatzen hasi dira amerikanoak.

KAZETARIA: Bai, hori ondo dago baina zer ikusi zenuen ondoren?

J.G.L.: Derrepentian zaratia entzun neban, gauzak behenganera jausten egongo bazirian lantxerik ta ia segijan gizonen ahotsak zarataka. Jua nintzan bertarantz aringa-aringa eta han ikusi nebazan "Donbenito" eta beste aitzitxa behenganian. Gizonak koiarra eukan zaman lotuta eta pentsaten dot "Donbenito" soltatan eguala ito egingo zala pentsaten ebalako. Nik pentsaten dot asesino bat sartu zala beste abadiari ostuten eta "Donbenitok" ikusi ebanian laguntzen jua zala eta orduan gaiztua, gaiztiagua eta indartsuagua zan lez bera be jo egin ebala. Nik aringa-aringa urten neban baten bateri abisateko eta Alejandro medikua eta I aki aguazilla topa nebazan Erkiaga tabernan saldia hartzen. Ez eguan inor bez plazan. Asesinua bez. Gero, zeu be agertu zinian, zeure kamariagaz, baina I akik ez eustun itxi hurreratzan. "Mentes Criminales" telesailian be ez dabe izten, ze bestelan zeure az-tarnak itxi leikizuz krimenaren eszenarijua, eta aguazillak konfundidu egin leikez, ta zeu eruan kartzelara.

Bueno merijendia jaten noia, gero bandia daukat eta!

KAZETARIA: Bale Jokin, jua tranuil, eskerrik asko konta deuskuzun guztiarengatik.

KIÑUKA

ARGAZKIAK ETA DISEINU GRAFIKOA

ARGAZKI ERREPORTAJAK ZIMBAUEN, UKRAINIAN,
BIZKAIA ETA GIPIZKUAN

INPRIMAKIAK:

ZERURA JUATEKO AGIRIJAK,
SALBOKONDUKTUAK, NAZIO GUZTIERAKO PASA-
PORTIAK, EDOZEIN UNIBERSIDADEKO TITULUAK,
MASTERRAK...

AZKEN ORDUKOA

BENITO ANSOLA ABADEA ATXILOTU DUTE!

Zazpietako meza bertan behera gelditu da

Udaltzaingoaren iturrietatik jakin dugunez, gaur Martxoak 5 Benito Ansola Erkiaga, 89 urteko Lekeitioko abadea, atxilotu dute Lekeitioko Andra Mariren Jasokundearen elizako sakristian. Dirudienez brasilgo agatekin egindako errosarioa, krimena egiteko erabili zuten arma, Benitoren da. Regina Do Santos artista brasildarrak oparitu baitzion Lekeitioko iazko San Antolin jaietan antolatu zen kontzertu baten parte hartzera etorri zenean.



Benito Ansola abadearen atxiloketa Lekeitioko Eliza nagusian. Photo: Villalba Press


Erredakzioari komenigarria iruditu zaio istorio rokanbolesko honen ulermena errazteko, hurrengo kronograma prestatzea, datu, data eta pertsonai ezberdinen artean ez delako erraza nabigatzea (Miguel Ibaseta eta Iturrizaren aipamenak labur-labur, sakon aztertu genituen eta aurreko Kurikean). Gainera asmo berarekin, batez ere aurreko aldizkaria irakurri ezin izan zutenentzat, Ibaseta eta Iturrizaren ibilerak laburtuko dizkizuegu.

KRONOGRAMA

- 1414 Likonatarrek Ondarrura desterratu Yarzararra hiltzeagatik, euren artean Martin Perez Licona lekeitiarra, Iñigo Loiolakoaren herenaitita
- 1491 Iñigo Loiolakoa jaio
- 1554 Antonio Navarro Larreategui jaio
- 1556 Iñigo (ordurako Ignacio) Loiolakoa hil
- 1601 Yñigo Martinez Licona Arteyta Marta Ondarroa Apalluarekin ezkondu
- 1603? Antonio Navarro ezkondu Magdalena Adan de Yarzarekin (ezkontza kontratua, 1602)
- 1604 Iñigo Zavala Arrizavalaga jaio
- 1608 Yarzararek probestutza berreskuratu 14.000 dukat! ordaindu ondoren (lekeitiarren gogoz bestera)
- 1609-7-27 Iñigo Loiolakoa beatifikatu
- 1610-14 Antonio Simancasko artxiboko arduradun
- **1610. hamarkada Kortxeleko mamuk sekta sortu Ondarroan. Mantra bakarra: santua izango dena ondarrutarra da**
- 1617 Lekeitioko alkate Yñigo Martinez de Licona eta Juan de Uribe de Yarza
- 1619-24? Yarzararek Lekeitioko jurisdiziotik alde egin, aurrerantzean Zubieta Lur lau (Tierra LLana) bihurtu
- 1619-24 Antonio, Manuel Filiberto Saboia-ko printzearen idazkaria (1621-24 Siziliako erregeordea)
- 1620 Antoniok *Epítome de los señores de Vizcaya* publikatu Turinen
- **1620 Iñigo Zabala ondarrutarrek dokumentu faltua idatzi eta Likonatarren dorrean utzi**
- 1621 Felipe III. hil, Felipe IV. errege
- 1622-3-12 Loiolako Ignacio santu izendatu/bihurtu
- 1624 Antonio Navarro Larreategi (Adan de Yarza) hil Palermon
- 1657-68 Yarzararek Lekeitioren kontrako auzia galdu (sobre la tumba, misas y respuestas y otros honores). Probestuak ziren, patroiak izan nahi zuten
- 1670-80 hamarkada Gabriel Henao jesuitak Iñazio Deunaren jatorri ondarrutarra aurkitu. Lekeitio aipatu ez. Francisco Garcia jesuitak ere teoria bera defendatu.
- 1680 Iñazio Deuna Bizkaiko patroizendatu Ondarroakoa zelako
- 1680 Iñigo Zavalaren aitormena eta suizidioa. Kortxeleko mamuen helburu bakarra: Zabala traidorearen aitormena aurkitu eta suntsitu
- 1688 Lekeitioko Udalak jesuiten kolegioa zabaltzeko baimena eman
- 1715 Maria Micaela Olabe Likona lekeitiarra ezkondu Juan Fernando Ibaseta Bustinzuriarekin
- 1718 Juan Ibañez Ibasetak, Juan Fernandoren aitak, *Entroncamientos...* idatzi. Santuaren benetako jatorria Lekeitioan kokatu
- 1719 Miguel Ibaseta jaio Lekeitioko Likona dorrean
- **1727 Likona dorrea konpontzen zeudela dokumentu madarikatua aurkitu**
- 1737 Miguel Ibaseta Jesusen Lagundian sartu
- 1741 Juan Ramon Iturriza jaio
- **1749 Juan Ramon Iturriza Likona dorreko morroi.** Urte berean Miguel misioetara Orinokora
- 1760 Juan Ramon Iturriza Mexikora joan
- 1767 Jesuiten kanporatzea, Mexikotik, 1768an
- 1795 Konbentzioko gerra. **Ibasetak bere aitormena Garraitzeko komentuan ezkutatu**
- 1796 Colmenares-Licona artxiboa antolatu "Iturrizak". Dokumentuen artean esaterako: *"Arbol genealógico de los Licona desde Martin Perez de Licona que se estableció en la villa de Ondarroa en 1414 y fue bisabuelo de San Ignacio de Loyola..."* eta antzekoak
- 1801 Ondarrutarrek *Razones* idatzi. Santua ondarrutarra zela aldarrikatu eta jai berezia urtero ospatu
- 1812 Juan Ramon Iturriza (Miguel Ibaseta) **Dominiketan lurperatu**
- 181piku Likonatarren artxiboko dokumentu batzuk lapurtu. Kasualitatez santuaren jatorriari ari zirenak
- 1939 K. W. Leintz Goitia jaio
- 2015 Leintzek Ibasetaren denbora kapsula aurkitu non Ibasetak gertatutako guztia kontatzen duen
- 2016 Leintz gurekin harremanetan jarri. Kurik 2an argitaratu bere ikerketa
- 2018-2-27 Leintzen idatzi batzuk erredakziora heldu
- 2018-2-28 Leintz erail



San Iñazio Loiolakoa



Kortxeleko mamu

Horizko ezin izan ditugunak frogatu (Leintzekin fidatu gara), baina egiantzekoak diruditenak.

AVERIGVACIONES DE LAS ANTIGVEDADES DE CANTABRIA.

OCVPADAS EN EXPLORAR SVCESOS
DE LOS CANTABROS, QVANDO DOMINARON

A ESPAÑA LOS GODO,
Y EN LOS DE EMPRESAS CONTRA MOROS,
Y EN DEFENDERSE DELLOS,
Y ENDEZADAS PRINCIPALMENTE
A DESCVBRIR LOS DE LAS TRES PROVINCIAS

CANTABRICAS VASCONCADAS,

(SSS) EN ESOS TIEMPOS, (SSS)

Y A HONOR, Y GLORIA DE

SAN IGNACIO DE LOYO

CANTABRO POR PADRE, Y MADRE,

(SSS) Y POR ORIGENES MATERNOS EN LAS OTRAS DOS,
Patriarca, y FVNDADOR DE LA COMPANIA DE

AVTOR

EL
PADRE GABRIEL
DE HENAO

DE LA MISMA COMP

RAZONES

QUE HA TENIDO LA N. VILLA DE ONDARROA PARA DE-

cretar la Celebridad anual de su hijo San Ignacio
de Loyola, y Licona.

En todos tiempos ha havido interminables contiendas entre
los Heroes, y sobre todo en países Cathólicos, de los que
Ilustres en santidad. Son recientes las luchas, y aun recu-
pendiosos sobre el Origen de San Martin de Aguirre,
Las decisiones que ha havido, no han quietado los
y hoy es el día, en que Beasain tiene tantos. Apologías
Vergara. La N. Villa de Ondarroa jamas ha disputado
quien pueda disputar á la N. Villa de Azpeitia el Origen
del grande Ignacio de las Ilustrísimas casas de Oñaz,
pero está persuadida que tampoco havra quien niegue
el Origen materno de dicho Santo de la Ilustrísima casa
Licona, que aun subsiste medio derruida en su mismo P-

Se han engañado pues grandemente los que publi-
la dichosa madre del Santo bascongado era de la casa
equivando á Doña Marquesa de Balda, Abuela de
con Doña Marina Senz de Licona, hija de Doña M
del Santo. Es verdad, que hasta la época del
Henao, no havia sino vagas

Entoncesamiento del Muy ilu-
tre S. D. Martin Garcia de
Licona, y Azterrica Abue-
lo materno del Gran Patriarca
S. Ignacio de Loyola, y Lico-
na En las m^{tes} ilustras Cas-
y Forres de Licona de la V. d^{ca}
Lequitio, y de Azterrica de
la de Ondarroa en el muy noble
y muy leal señorio de
Vizcaya

32
Testamento del P.
Sr. Fr. Nave de la Raderia
Testamento del Secretario Antonio
Vizcarra de Larritegui año 1624
Hecho en el Regno de Vizcaya

Laburpentxoak: Ibaseta eta Iturrizaren ibilerak

Bi pertsonaia nagusi genituen: Juan Ramon eta Miguel, Miguel eta Juan Ramon (tanto monta...).

Juan Ramón de Iturriza (1741, Berriz). Maisu txiro baten semea, aitzak etxean hezi zuenez, bere adineko mutikoak baino azkarragoa zen. 1749an, zortzi urte besterik ez zituela Ibaseta ezagutu zuen; Miguel de Ibaseta familiako artxiboa antolatzeaz azken lanak egiten ari zen misioetara joan aurretik eta nahikoa zuen irakurtzen eta idazten zekien mutiko haren laguntzarekin azken ukituak egiteko artxiboan. Gaztea zen, baina ez leloa. Zerbaite ikusi zuen han.

Mexikora emigratu zuen, non bere osabaren okindegian hasi zen lanean. Osaba hil zenean, kale-gorrian geratu zen. Misterioa: nola liteke artxibozain eta historialari ospetsu izatera iritsi izana! Nola liburu erlijiosoak idatzi izana! Ez zen sekula ezkondu.

Miguel de Ibaseta (1719, Lekeitio). Likonatarren premia. Premutasuna utzi eta Jesusen Lagundian sartu zen. Bere anaiak berdin egin zuen geroago. Premutasuna arrebarengana pasatu zen. Oso arraroa. Zer dago misterio horren atzean? Ibaseta Orinocora joan zen misiolari lanetan. Bertan hil zela dio historia ofizialak. Baina K. Leintzek Garraitzeko irlan aurkitu zituen dokumentuek ez zioten hori. Ibaseta ez zen hil Orinokoko erredukzio jesuitan. 1767. urtean, Aita Santuak Jesusen Lagundia deuseztatu zuenean, Miguel eta lagun zuen Juan de Cobeaga jesuita, lekeitiarra hau ere, Mexikoko Tetzoplotan hirian elkartu ziren, hara eraman baitzituzten jesuitak erregearen mandatuak. Nor aurkituko bertan eta beste aspaldiko pertsonaia bat: 26 urteko Juan Ramón de Iturriza txoriburua.

Premutasuna uztearen zergatia

Ibaseta anaiak zergatik utzi zuten bere arreba-aren eskuetan premutasunak dakartzan erregalia eta pribilegioak, beti izan da misterio handia historialarientzat. Ibasetaren eskutik dakigu zergatia. Denbora-kapsula hark sekretu izugarria gordetzen zuen: Loiolako Ignazio deurenaren benetako aita Aragoiko Fernando II. izan zela. Bere botere eta ahalmenaz aprobetxatuz, erregeak Doña Marina Saez de Licona bortxatu eta haurdun utzi zuen 1490. urtean. Bere gehiegikeriaren ondorenaz jabetu zenean,

erregeak dirua eta pribilegioak eskaini zizkion Don Beltrán Yáñez de Oñaz y Loiolari aitatasuna berak ematearen truke. Don Beltrán adarduna bai, baina askonahi handia ere bazen, nahiago izan zuen bere ohoreari egindako irain izugarria irentsi eta bere itsulapikoa goraino bete.

Bi mende geroago, Miguel de Ibasetak guzti hori frogatzen zuen dokumentu sekretua aurkitu zuen, etxeko artxiboan lanean zebilen batean. Hain sentitu zuen umiliatuta bere burua eta familiaren ohorea ze, berria anaiari aitortu ostean, bere premutasunari uko egin eta Jainkoaren barkamena lortzen saiatuko zen Jesusen Lagundian sartuta.

Halako batean heldu zen misioetara joateko eguna. Azkenengoz irakurri nahi izan zuen dokumentu madarikatua, ezkutalekuan betiko gorde baino lehenago. Baina ez zegoen baka-rrik, gortina atzean, Juan Ramon Iturriza gazteak dena ikusi zuen.

Iturrizaren sekretua

Laburrean kontatuko dugu Mexikon gertatu zena, zeren jada idatzita dago Kurik aldizkariaren bigarren alean.

Tetzoplotango hirian, Iturrizak Ibaseta eta Cobeaga ikusi zituenean, zerua ireki zitzaiola pentsatu zuen. Azkenik, miseriatik aterako zuen Ibaseta jauna bere aurrean zegoen. Inork pentsatu bazuen okin izateko asmotan joana zela Ameriketaraino oso oker zegoen. Bere intentzioa, hasiera hasieratik, Ibaseta aurkitzea zen, ondo gordeta zeraman dokumentu harekin xantaia egiteko asmotan. Zer ausarta den ezjakintasuna! Zelan aurkituko zuen Ibaseta halako kontinente erraldoian? Iturrizak bazekien Ibaseta Orinocora joanda zegoela, baina nola iritsi haraino? Bere haur-imajinazioan, uste zuen Mexikotik Venezuelara joatea Euskal Herritik Galiziarra joatea baino zailago ezin zitekeela izan.

Egun hartan loteria tokatu zitzaion Iturrizari. Hori uste zuen berak behintzat.

Ibasetarengana joan eta hainbat urtetan gorde zuen dokumentu hura erakutsi zionean, ez zuen pentsatu premutasuna uzteko gai izan zen gizon hark ez ziola xantaiari betarik emango. Sekretu hura gordetzea zen bere misioa mundu honetan (beste munduan ikusiko zen) eta ez zuen etsiko gazte haren mehatxuaren aurrean. Iturriza beste mundura zihoan bitartean akaso enteratu

ere ez zen egin bihotzean sentitzen ari zen sastada hura ez zela bazkariko frijoleak eragindako haize bat, baizik eta Toledoko damaskinatuz apaingutako daga baten sastakada zorrotz bat.

Cobeagak ez zion bere lagun Ibasetari galdararik egin. Izugarrikeria hura egin bazuen, bazekien arrazoi oso garrantzitsuren batek justifikatuko zuela. Garai hartan hilketak, bigabekeriak eta lapurretak eguneroko ogia ziren lege gabeko Espainiar kolonietan. Iturrizaren gorpua biluztu eta bide bazterrean utzi zuten. Mesedetako fraide talde bat pasatzen zen goizero gurdi batekin aurreko gaueko alkoholak eta biolentziak utzitako hilotzak bildu eta lurperatzera, guztia dohain eta otoitz batekin hornituz.





(Erredaktoreen oharra)

Ondoren datorrena idazteko K.W. Leintz zenaren zirriborroetan oinarritu gara. Berak egindako ikerketak ordenatu eta garbira pasatu ditugu, besterik ez.

Leintzen asmo nagusia konspirazio hau azalartzea zen eta Jesusen Lagundiaren eta Miguel Ibasetaren izen ona aldarrikatzea.

Mojekin egiaztatu nahi izan dugu Aita Leintzen kronika. Gure begiekin ikusi dugu Ibaseta/Iturrizaren hilobia mojen hilerritxoaren zokondo batean. Sor María Teresa Garamendi Rey, Ama Nagusiak informatu digunez, garai hartako Calahorrako gotzaina zen Don Juan Luengo Pintok agindu zien orduko moja Domingotarrei, Ibaseta/Iturriza, bere betebeharrak bukatu eta erretiroa hartzea erabakitzen zue-nean, komentuan hartu eta babes-teko, bizian eta heriotzan. Akaso ez zuen pentsatuko hain bizitza luzea izango zuenik.

Done Domingo komentuko sekretua

Historia ofizialak dioenez, Juan Ramón de Iturriza Munitibarren zendu zen 1812. urtean. Asmatuko zenuten modura, Iturriza defuntuaren gaitasuna artxibo garrantzitsuenak antolatzeko edota liburu espiritualak eta historiografikoak idazteko, ez zen berpiztu zelako baizik eta Iturrizaren mozorropean, Miguel de Ibaseta ezkutatuta zegoelako.

Ikerketa astuna eta luzea izan da Ibasetaren hilobia aurkitzea (Iturrizarena esan beharko dugu?). Susmatzen nuen bezala, gorpua Done Domingo komentuan dago. Ez kaperako leku pribilegiatu batean, nik uste nuen bezala, baizik eta mojen hilerrri pribatuko txoko batean. Elizgizon izateak eman didan autoritateaz baliatuz miatu ditut bazterrak Miguel de Ibasetaren hobia aurkitu arte.

Uste nuen bezala, hilobian bertan egon da gordeta misterio guztiaren erantzuna Ibaseta 93 urte zituela zendu zen urteaz geroztik, hau da 1812. urtetik gaur arte. Ibasetak, mojen kapilau lanak bete zituen bertan bere azken urteetan, bekatuen barkamena bilatu nahian, beti ere Iturrizaren izenpean. Mojen nagusia Likonatarren tartekoa izanik, erraz lortu zuen baimena, guztia aitortu ostean. Edozein kasutan hilarrian "Juan Ramón de Iturriza, quien fuera primeramente señor de Ibaseta, buscando la Gracia Eterna" jar-tzen du. Mojek jakinaren gainean egon dira denbora guzti honetan. Ez da harritzekoa sekretuz beteriko istorio honetan!

Miguel Ibasetaren hilobia Santo Domingo komentuan.



IBASETAREN ONDARE POZOITSUA

(K.W.Leintzen konklusioak)

Ibasetak bere hilibiko hilkutxan gordeta zuen metalezko zilindro hartan (Garraitzeko komentuko harkantioan aurkitu nuenaren bizkia), beste dokumentu batzuen artean, XV. gizaldiko dokumentu madarikatua aurkitu nuen. Zergatik ez zuen errautsi? Jainkoaren bideak ezin asmatuzkoak dira, niri konspirazioa argitzeko balio izan dit.

Metalezko tututik atera nuenean dioxosozko dokumentua, dar-dar nengoen, han zegoen zoritxar guzti haren giltza. Zabaldu eta batera ikusi nuen amarrua, desilusio handia izan zen niretzat baina aldi berean oso pozgarria. Azkenean, egia, pantaila erraldoi bateko irudia bezala, nire aurrean agertu zen.

Zorioneko dokumentua

Nola liteke Ibaseta hain modu errazean engainatu izana, maleziagabeko inozo bat balitz bezala? Non zeuden bere artxibozain-jakituriak? Hain itsu utzi zuen gizona dokumentu haren edukia?

Badirudi edukiak ez ziola edukitzaila ikusten utzi. Nola ez zen konturatu XV. mendearan amaieran ez zela halako idazkera erabiltzen? Nola ez zen konturatu Aita Florez Jesuitak eta Pedro Diaz Morante kaligrafoek XVII. mende hasieran idatzitako tratatuetan oinarritutako idazkera zela? Zenbat negar eta atsekabe aurreratuko ziratekeen, jakin izan balu Kanariar iriak ez zirela agertu errege-erregina katolikoen tituluen artean 1494. urtera arte!!!

Don Fernando e dona Ysabel, por la gracia de Dios, rey e Reyna de Castilla, de Leon, de Aragon, de Toledo, de Valençia, de Gallizia, de Mallorcas, de Seuilla, de Çerdena, de Cordoba, de Corçega, de Murcia, de Jahen, de los Algarues, de Algesyra, de Gibraltar e de las yslas de Canaria, conde e condesa de Varçilona e sennores de Viscaya e de Molina, ... a vos, Beltran Yañez de Oñaz y Loyola, otabo señor de la casa de Loyola, salud e gracia. (Iñigo de Zavalak idatziko dokumentu faltsuaren hasiera).

Nire begiek eta adimenak esaten zutena gutxi balitz, zalantza txikiena ere desagertzeko, ezusteko beste opari bat gordetzen zuen Ibasetaren hilibiko zilindro hark: faltsutze haren egilearen aitortpena. Ez dago dudarik, esku berak idatzi zituen 1620ko dokumentu madarikatua eta 1680ko aitormena, idazkera landu, dotore bera, urteak ez balira pasatu bezala. Ez dizuet inolako azalpenik emango, harritu zaitetzte zuen kabuz...



ABISUA!!!

HIZKERA ETA GERTAKIZUN BATZUEK
IRAKURLEAREN SENTIKORTASUNARI MIN EMAN
DIEZAIOKETE

Konfesiñoi

Vizcayko Ondarrun, gure jaunan 1680. urteko urrixan 31n, Jaurrerixak Loiolako Ignatius gure fundatzalli Bizkaiko patroixendatu bir daben egunan bexperan, Inocencio XI. Atxe Santu dala eta Carlos II Españi guztiko erregei.

Nik, Iñigo de Zavala y Arrizavalaga, 1604. urtin Ondarru eskualdeko Kaminazpi Konderrixan jaxuk, Jesusen Lagundiko anaxi nazen honek, Ignacio de Arriola y Bustingorri Ondarruko artzapeza lekuko dotela, zera aitortzen dot :

Kriston putakumi nazela Loiolako Ignatiusen ixena zikintzeatxik eta infreñuko zigor eta madarikaziñoi guztik merezi dotxuazela.

1620. urteko abendu zan Napolin neuanin Jesusen Lagundire sartzeko seminarista ikasketak burutzen. Gure Lagundixan fundatzallik asma ebazen zoixoneko Gogo-Jardunak amaitxu barri neukazen. 16 urteaz, kirtena beti tente eta sutako gantxu baño berua, Antonio Navarro de Larreateguren amarrupin, pekatun jausi nitxan.

Antonio Navarro de Larreategui, gixon ospetsu zan eta aginte handiku, gure errege zin Felipe II. eta Felipe III-an sekretaxu ixandaku eta baitxe be Simancaseko artxibu berrantolatu bana. Ordungo sasoin Manuel Filiberto Saboiako printzipin morroia zan, bañe ez edozelako morroi, beran sekretaxo pertsonala baño. Napolin eguazen dokumento batzun bille ebillela eta, beran laguntzaille modure hartu nitxun hiru-lau asteako nire nagusixan baimenaz; nik pentsaten neban neure abilidadikatxik ixan zala, bañe gero jakin neban Ondarru eta Leketxoko Likonatarrakin neukan harremana zala niandik interesaten gakon bakarra (Iñigo Martinez Liconan andrin lobi nitxan).

Ni, gure Lagundixan fundatzalli zan Loyolako Ignatiusek inponiu euskuzen Gogo-jardunak amaitxu-barri neualez, Antonio Jaunak afai batea inbitastanin zeru zabaldu astan. Horrenbeste eguneko barau fisiko ta espiritual ein de gero batek esango leuke Tasmaniako diabru baten moure jan, bañe batez be eran, nebala. Bakarrik akordaten na bapo-bapo jan da eran ostinn, Don Antoniok pipa holandar batetik opium ixeneko digestiñoi-laguntzalle bat erreteaa anima nitxule. Esastan tripi betiei baneukan, mesede engostanela.

Gelako ati golpe baten zabaldu zanin, kriston bunbari einban paeta joeran. Ohitxik altza nahi neban, bañe ezinezku eingastan, ohire jositxe senti u nitxan, ezkerreko besun gañin neska gazte baten burua neukan etzunde ta eskuman mutil gazte batena, hirurok billotxik geuazen, ni erdixan, Jesukristo lapur biren tartin moure. Pito-punti errete ta gorri-gorri neukan, da popako zulun kriston azkuri te pikorra.

Antonio Navarro y Larreategui eta beran soldau bixak neuri beire euazen bei-zabalik. Ni barriz ahue iratxe ta ixte entendiu ezinik, maria ta konozimientia galdu neban... "Cochino, cómo se te ocurre hacer un trío aquí?" ixan zan azkanengoko gauzi entzun nebana.

Esnatu nintxanin, Antonio Navarro y Larreategi neukan aurrin, irrifartsu, beran pipatik erreten. Lelengo eistan galderi hauxe ixan zan: Badakixu Inkisiziñoik zer etxetzen sodomitai?. Bigarren galderi barriz, hau: Badakixu ze eingotsuen Napoliko Erregeordin andrik beran dontzella bat desonrra dozule jakitxen dabenin? Hirugarren galderia entzun nebanin ixte galdu neban ostabe konozimientu: Ze pentsatezuzu pasako rala zuaz Jesusen Lagundixan enteraten dizenin kastidade-botu a saber zemat bidar apurtuzun gaur gabaz. Eta zelan gañea!

Handik nahaste-borrastetik urteten lagundukostala ezkeñistanin, ixer beran oñetakuk txupatea makurtu nitxan, hañ esker oneko sentiu nitxan.

Proposatestan soluziñoi argixustanin, orduntxe konturatu nitxan dana tranpa kotxino bat baño ez zala. Berak preparatako tranpa zikiñ bat. Bañe nik onartzi erabaki neban da hortxe eon zan nire pekatoik handixena.

Antonio Navarro Larreategui Jaune, Magdalena Adan de Yarza Uribeaz ezkontute euan. Yarza-tarrak Leketxoko jauntxuk zin eta kontraxo bi euken: Leketxo ta Likonatarrak. Ezkondu zanin prometiutzan andriai eta amañarrebai Likonatarrakin amatxukobala. Dokumento bat be preparaban Inazio beatun jatorri leketxarra baztartzan, bañe exito gitxiaz. Ezin hobeto etorriakon nire lakoxe gisajo atelamato bat (sikieran gaur datxena jakin ixan baneban). Ongun ezaban gauzak erdizke ingo, Inazio Leketxoku eta Likonatarra ixango zan, bañe putasemi.

Zer dala ta holako gorrotu? Bi siglo ariñaua, 1414. urtin Likonatar batek, Oñaztarran bandoku bera, Ganboatarrak zin Yarzatar bat hilban. Gero, Likonatarrak Ondarrure desterrabezen. Bañe 200 urte ez zin ixan nahiku familixa bixan arteko gorrotu leuntzeko. Gañea, Yarzatarrak amaierabako pleitutan bixi zin Leketxoko herrixaz, zeñek-gexako matxasun-goroto relaziñoi bat zan Adan de Yarzarrek Leketxoaz eukena.

Idei zan Loiolako Ignatiusen jatorri leketxarra dezeń eta ahaztuti, jatorri Ondarrutarra inyartuz. Gañea Likonatarrei ahaztueziñeko zigor eder bat nahitsen emon.

Dokumentu faltso bat prepara eraistan artxibozañ moure eukan jakiñ eta habilitadikin: dokumentu horretan Loiolako Ignatius kakaztuko an putaseme bat zala esaten. Bide batez beran ama be pikotan geatuko zan bakarrik pekataxak etxen ekixela ta. Jakiñe dokumentu Likonatarren artxibun sartu bir nebala eta eurak topati erreztu, bestelaik ezeukan grazirik ezta probetxoik.

Aindutaku ein neban. Likonatarrak nigan eukan konfixantziak aprobetxata euran artxibun sartu neban dokumentu maltzurre eta topa arte eon nitxan zañ. Ezgasta ahaztuko errez ha egune: Likonatarran gañea jauzi zan mingorra ta lotsi familixan geatuko zan hurrengo belaunaldixetako. Ni, kriston deskubrimientun testigu nitxanez, arriskogarrizat hartu nitxuen eta erosti pentsaben. Sekretu gordetearren 5.000 dukado ordaiñjusten, da abare aberatsa bihurtu nitxan. Egixe esateko Likonatarrai putadi etxi ez gastan gusta, bañe leketxar lantzoik fastixatik gustirrinin handixe emostan. Bueno, no hay mal que por bien no venga Olivaresko Dukeak esateban modura uzkar bat botatebanin.

Hainbeste urtin nuntzio apostoliko lanetan bixitxe gero, printzipe bat morun, gaur Ondarrure bueltan etorri naz eta honei guzur handixai amaieri nahitsat emon. Bixar, Jaurerriak Bizkaiko patroixendakorau Inazio Loiolaku. Ezin dot guzur honeaz aurrea jarraitxu. Aita Ignacio de Arriola y Bustingorriak konfesako na berak tokirik egokixenea erun daixen fartsa honeaz amaitzeko.

Nik, neure azken afaxe ein dot ondala ordu erdi eskaz. Leatza ondarrutar era kokotxa batzukin eta dana zikutiaz ondo aliñata. Gatz-puntu ondo hartu baik euki rau, bañe bueno, neure buruaz beste etxen nazen momento honetan ez ga tikis-mikis ipiñiko. Herixotzin zañ na neure roiboos con mango infusiñoi hartzen nazen bitxartin.

Inigo de Zavala y Arizavalaga



AD MAIOREM DEI GLORIAM

Erredakzioaren oharra

Leintzek zekien euskara apurrak oso zaila egingo zion aitormen karta hau ulertzea (XVII. mendeko ondarrutarra!). Horregatik ondarrutar –eta jakintsu– baten laguntza beharko zuelakoan gaude. Baliteke Leintz gizarajoak otsoaren atea jotzea. Polizia jakinean dago. Endredu honen giltza izan liteke!

Dirudienez, Mexikotik bueltan Juan Ramón de Iturrizak (Ibaseta deituko diogu aurrerantzean, badakigu identitate ordezipena egin zuela-eta) Bizkaiaiko eta Gipuzkoako artxiboetan egin zuen lan obsesibo eta nekagaitzak, zerbaiterako balio izan zuen: dokumentua faltsua zela jakiteko eta aitormen eskutitza aurkitzeko. Ezin izan dut asmatu non aurkitu zuen aitormen-dokumentu hura. Ez dakit. Susmoa daukat Jesusen Lagundiaren artxiboetako baten izan litekeela (Lekeitioko Konpainiako komentuan?).

Lekeitioko Montegutar eta Kapuletarrak. Konspirazioa

Aitormen dokumentuan Don Antonio Navarro Larreategui agertzen da azpilan guztiaren erantzule bezala. Baina zergatik egingo zuen horrelakorik?

Navarro Larreategui jauna, ikusi dugun modura, Felipe II. eta Felipe III. idazkaria izan zen (secretario real). Simancasko artxiboko arduraduna ere izan zen. Geroago Siziliako erregeordearen idazkaria izan zen. Nolatan sartu zen endredu honetan?

Don Antonio Navarro Larreategui, "Epítome de los señores de Vizcaya" idazteko Yarzararren laguntza izan zuen. Harreman hori, sendotzen joan zen eta Maria Adan de Yarzak bere alaba zen Magdalena Adan de Yarza Uribe aukeratu zuen oinordeko, anaiak baztertuz, Navarro Larreateguirekin ezkon zedin. Alde batetik influentzia handiko gizona, bestetik antzina-antzinako leinu noble bateko oinordekoa. Ezkontza 1603 aldean ospatu zen.

Ezagunak dira Likonatarren eta Yarzararren arteko drogak (hitz hori erakutsi zidan amak gartzetan). Bandokide garaian Yarzararrak ganboatar izan baziren, Likonatarrek oinaztar. Hain zuzen ere 1414. urtean Likonatarren nagusia zen Martín Pérez de Liconak, Yarzararren burua zen Rodrigo Adan de Yarza erail zuen, armak atera zituzten liskar batean. Eta Likonatarrek Ondarrura desterratu zituzten.

Don Antonio Navarro Larreategui Yarzararrekin uztartu zenean, ia bi gizaldi geroago, Likonatarren eta Yarzararren arteko urek bere onera etorriak baziruditen ere, gorrotoa bizi-bizirik zegoen oraindik.

Likonatarrenganako gorrotoa gauza bat zen eta Lekeitiorenganako beste bat. Lekeitioko kontzejuak eta kabildoak, behin eta

berriro aurre egiten zien nobleei. Yarzararrak eta Lekeitio eten gabeko auzietan sartuta bizi ziren urteak etorri eta urteak joan, mendeak etorri eta mendeak joan.



Lekeitio eta Yarzararren arteko liskarrak eta auzi amai-gabeak. LUA R26, 27, 28

Yarzarrek Don Antonio Navarro Larreategui etxera eraman zutenean, bi helburu zituzten buruan. Alde batetik probestu kargua berreskuratzea Lekeitioren pribilejoei aurre egiteko, eta bestetik, Likonatarren ohorea zapuztea. Guzti hori Navarrok politika eta elizako hierarkian zituen adiskideez baliatuz. Horretarako bi saiakera egon ziren. Lehenengo, nola esan, ia gozoa, bigarrena, berriz, demasa.

Gezurrak buztana labur

Antonio Navarrok dokumentu bat prestatu zuen orduan, oraindik beatoa zen Iñazio Loiolakoaren benetako jatorria ezagutu ez zezan. Lekeitio eta Lekeitioko Likona dorrea aipatu ere ez zituen egiten. Jakina, Navarro gezurretan zebilen García Salazarren obra ezagutzen baitzuen (badaezpada bere "Epítome de los señores de Vizcaya" liburuan ez zuen halako astakeriarik esan). Benetan istorio xelebrea asmatu zuen (Juan Ibasetaren hitzetan: "hermanables con las aventuras de Don Quijote"). Dokumentu hori idatzi izan zenaren froga Juan Ibañez Ibasetaren "Entroncamientos..." liburuan aurkitu dugu.

Euskadiko artxibo historikoa, Likona-Colmenares artxiboa, 165. paper-sorta "Entroncamiento del muy ilustre Sr. D. Martín García de Licona y Azterrica, abuelo materno de San Ignacio de Loyola y Licona, en las muy ilustres Casa y Torres de Licona, de la villa de Lequeitio, y de Azterrica de la de Ondarroa" 1718.

Navarroren esamesa

"Quiere se decir que en la librería del Doctor Cortazar Abogado de los reales Consejos vecino de Lequeitio se vio un papel suelto manuscrito, que parece le prohijan algunos al secretario Antonio Navarro Larreategui señor que fue por su muger de la Ylustre casa y torre de Yarza alias Zubieta en la misma villa en que dicen se refiere que dos hermanos hijos de la casería de Licona de mendeja por causa de un homicidio que cometieron se ausentaron a Castilla donde habiendo adquirido muchas riquezas dieron buelta a su tierra (compuesta sin duda la causa de su ausencia) y en la fundaron y erigieron de nuevo dos torres cada uno la suya la una en la villa de ondarroa la que segun sobrecitados scriptores quedo con nombre de torre de Licona, en cuya consecuencia el tronco y origen de las casas de Licona en Cantabria es la dicha casería de Mendeja. Y de esto parece que se reduce lo que se cuenta al citado papel. Anse hecho varias diligencias por descubrirlo asi en dicha librería como fuera de ella, pero ni tal papel se ha podido allar, ni mas rastro o noticia...". Politiko eta diplomatikoen estilora, harria bota eta eskua gorde...

Kontixu ez zuen eraginik izan. Bigarren saiakera ikaragarriak bai. Ez dakigu bien bitartean zer gertatu zen, baina badakigu 1617ko Lekeitioko alkateak Yñigo Martínez de Licona Arteyta eta Juan de Uribe y Yarza izan zirela. Likonatarra Iñigo Arteita almirantearen birbiloba eta Yarzararra Antonio Navarroren koinatua. Zer gertatu zen? Ezer onik ez! Handik gutxira Yarzarrek Lekeitioko jurisdiziotik alde egin zuten eta. Leintzen apunteetan 1617ko antzarretan gertatutako istilu gogorren bat aipatzen da, baina ezin izan dugu konfirmatu (hala ere, ikus. 234. or.).

Gezurrak egiaren arropak janzten

Bigarren ahaleginean txikikeriak albo batera utzi zituzten. Antonio Adan de Yarza Larreategui (bidean Navarro galdu zuen) Italiatik zebilen 1620ko neguan ondarrutar gizarajo bat aurkitu zuenean. Ondarroa eta Lekeitioren arteko aspaldiko gorrotoa erabiliko

zuen. Milaka adibide daude; Lekeitio handia zen orduan, Ondarroa ez hainbeste, eta horrek enbidia piztuko zuen. Iñigo de Zavala y Arrizavalaga, Loiolako Ignazio sasikumea zela zioen dokumentu faltsua idatzi eta Likonatarren artxiboan jarri zuena ondarrutarra zen. Bera aukeratu izana ez zen kasualitatea izan, beraz. Gainera Likona dorreko nagusiaren, Marta Ondarroaren, iloba zen.

Ez dakigu noiz aurkitu zuten Likonatarrek dokumentu pozoitsua (Iñigo Zavalaren aitormenaren arabera 1620-21ean). Duda barik Miguel Ibasetak aurkitu baino lehen, baina halako tamainako desohorea ezkutuan mantentzea erabakiko zuten. Hori litzateke familiaren hainbat urtetako diskrezioren arrazoi nagusia. Hor Ignazio santu izendatu zutenean (1622/III/12) lekeitiar jatorria ez aldarrikatzearen arrazoia, ezta Bizkaiko patroï nonbratu zutenean ere, 1680an. Ondarroako Likonatarren alde joan zen beti Lekeitioko en isil-mandatu.

Halaber, 1718an Juan Ibañez Ibasetak, familiara etorri berri, ez jakinaren poderioz "Entroncamientos..." liburuan santuaren jatorri lekeitiarra aldarrikatu zuen. Lehenengo Antonio Navaroren ustezko dokumentua baliogabetu zuen eta gero Henaok, eta Henaori jarraituz beste batzuek baztertu zuten gertakizun historikoa azaleratu zuen. Zergatik ez zuen Henaok Garcia Salazarrek esandakoa kontuan izan?

Egia, sudurraren ondoan begia

Juan Ibaseta inozoak –jakin izan balu zer gertatuko zen!– Garcia Salazarri jarraituz egia aurkitu zuen: *"La otra relacion que se apunto al numero 32 haver llegado a nuestras manos mientras buscabamos la que queda examinada la suministro Don Martin de Aransivia presvitero veneficiado que es de la Yglesia Matriz desta villa de Lequeitio sugeto de autoridad y representacion en aquella villa digno de entera fee por su estado y por su sangre demanada de la nobilissima Torre de Aransivia y mui observador de noticias genealogicas. Refiere pues este señor sacerdote haver visto algunos años hace en la libreria del Doctor Cortazar Abogado de los reales Consejos un papel sueltto de letra antigua cuyo contenido en sustancia hera: Acia los principios del signo (sic) de 1400 Martin Perez de Licona señor de la Torre de Licona en la villa de Lequeitio dio por causa de bandos un saetazo de erida mortal al señor de la torre de Yarza del bando gamboino y por causa de este hecho y porque en dicha villa todos menos los Licona y algunos pocos de su sequito heran del bando del erido hobo de ausentarse Martin Perez del bando oñacino desamparando su casa y lugar... Y asi se preciso a huir el cuerpo retirandose e con un hijo suyo dejando a otro en dicha su torre a la villa de Ondarroa y cercania de la torre de Arancivia del mesmo bando oñacino... y fue entonces quando hizo asiento en Ondarroa el linage de los Licona de cuya sucesion fue el Doctor de Ondarroa..."*



"The life of King Edward the Confessor", 32 v. Matthew Paris, 1250-60. Cambridge University Library

Garcia Salazarrek bere liburuan "Bienandanzas e fortunas" esaten zuen bezala:

"En el año del Señor de UCCCCXIII 1414) años, mataron los del solar de Arteaga, en la Villa de Liqueitio, a Rodrigo Adan de Yarça, nieto erederero de Adan de Yarça, con una saeta por los pechos de esta manera. La Villa desde antigüedad fue a mando e ordenança del solar e linaje de Yarça, e leuantose contra ellos Martín Peres Licona, que era un mercadero mucho Rico, e allego parentela, e fuese al solar de Arteaga, que era vecino, e enemigo de estos de Yarça, e estando algunos lacayos dellos con el, acometieronlos los de Yarça, e pelearon en la calle, e ovo muertos e feridos algunos, e murió aquel Rodrigo Adan de una saeta, que le paso sobre una lóriga de malla a cavo de XX dias, toviendolos çercados en aquella casa con ayuda de los de Aulestia, e de algunos de Muxica, e queriendolos quemar, venieron todos los mejores del solar Arteaga con Juan Peres de Avendaño, el de Urdaybay, que era fijo bastarde de Furtun García, el Viejo de Arteaga, en una madrugada, e con grande osadía e esfuerço, quebrantaron la puerta de la Villa, e peleando e con mucho daño de sus gente, oviendo muchos muertos e feridos, entraron por la villa adelante, e socorrieron a los dichos Martín Peres, e a los que con el estauan de Arteaga, e morio alli Rodrigo de Xagarminaga, que era un buen escudero de los de Arteaga, e otros muchos de ambas las partes, e Recreçiendo gentes con Juan Alonso de Muxica, e con Furtun Garcia de Arteaga, que eran llegados cada uno en defension de los suyos, e fuendo alli el Dotor Gonzalo Moro, e Ochoa de Salasar, fesieron treguas, e sacaron todos los forasteros de la Villa, e por esta dicha muerte del dicho Rodrigo Adan, que era mayor de Yarça, en edad de XXV años, fue despoblado aquel Martín Peres e los suyos de allí."



"China illustrata", Athanese Kirchere, 1667

Konturatuko zineten Santa Ana kaperan bataiarri berezi bat dagoela. Ez dakigu haretaz ezertxo ere ez, ez noiz egin zen, ez nork egin zuen..., dakigun bakarra da ez dela arrunta. Zer egiten du masoien konpasak, zer ilargiek eta izarrek? Horra hor Athanasius Kircher jesuita ospetsua antzeko konpasa duela eskuetan. Hau ere Kortxeleko mamuk sektakoa? 1602an jaioa, Inigo Zavala ezagutuko zuelakoan gaude.



Ibasetaren liburua argitaratu eta zabaldu izan balitz egia jakingo zen, ez da beraz kasualitatea urte gutxitara, 1727an, berriro dokumentu madarikatua agertu izana. Miguel Ibasetaren ibilerak ezagutzen dituzue dagoeneko. Etxeko artxiboa antolatu zuenean, 1796an dokumentu guztiak zituen prest Iñazio Deunaren jatorria Lekeitioko Likonatarren dorrean kokatzeko. Horregatik Ondarroakoen presa *Razonamientos* idazteko, 1801ean. Arrazoiketotan behintzat Garcia Salazarrek esandakoa aipatzen zuten ondarrutarrek, baina Lekeitioko jatorria gutxietsiz. Likona dorreko dokumentuak argitaratzen baziren, hainbat mendetan esandakoa kolokan jarriko zen. Ez dakigu noiz, baina hainbat dokumentu ohostu ziren Lekeitioko Likona dorrean. Denak Likona familiarekin eta santuaren jatorriarekin zerikusia zutenak. Colmenares, Ibaseta, Olave eta hainbat familiaren paperak zeuden eta bat bera ere ez zen desagertu. ZERGATIK?

Garrantzitsuena argitu dut baina beste susmo bat daukat. Aspalditik entzun dugu jesuiten berriketa-leku askotan, eliza barruan lekaide eta abade talde ondarrutar bat "Kortxeleko mamuk" izenekoa dagoela eta denok dakigu Lekeitioko parrokia ondarrutarra dela!

Bihar, Santa Anaren kaperara joateko asmoa daukat. Bertan Don Antonio Navarro Larreateguik Turinetik 1620an ekarritako opari sakratu bat dago: Turineko Mairidire Santuaren bedeinkatutako kopia, "EXTRAXIT EX ORIGINALI AVGVSTAE TAVRNORUN ANNO 1620". Ziur nago zerbait ezkutatzen duela. Frogatu beharreko guztia frogatuta daukat, baina azken susmo hau argitu arte ez naiz lasai egongo.

Bihar arte...



"Iter Exstaticum", Athanasius Kircher, 1660



KORTXELEKO MAMUK

San Ignaziok 1534. urtean Jesusen Lagundia fundatu zuenean, bere asmoetako bat Lutero-ren Erreforma protestantea suntsitzea zen. Aita Santuaren ezinbesteko tresna bihurtuko ziren asmo horretarako.

Hala ere, ez ziren fundamentalistak; esaterako begiko zuten anabaptistak defenditzen zituzten proposamen batzuk. Asian, berriz, Franzisko Xabierkoa buru zutela, jesuitek budismoa

ezagutu zuten. Anaia lego talde batek, hau da ordenatu gabeko lekaideak, budismoaren sinesmen garrantzitsuenetako bat bereganatu zuen: gizakiaren berraragizatzea, "erreenkarnazioa"!

1609ean, Ignazio Loiolakoa beatifikatu zuten urtean, talde txiki horren burua zen Anttiero Chiamarrottik (? – 1666) idatzi zuen bere "Sectatores Crucifixi Reincarnated", isileko liburu sekretua (ez da geratu ale bakar bat ere, guk dakigula behintzat). Bertan jesuita anaia lego italiar honek esaten zuen Inazio Loiolakoa "Kristo gurutzatua berraragizatua" zela. Chiamarrottik Paraguy-ko jesuiten Erreduktzioetan (misioetan) xaman indioen ayahuascaren erabilera ezagutu zuen. Dirudienez berak ere bere gogoetarako erabiltzen zuen tresna mistiko bezala haluzinazioak lortzeko.

Ondarroako jesuitek gustura onartu zituzten ayahuasca, onddo haluzinogenoak eta zer ez bere errietoetarako. Ohizkoa denez talde horren barruan beste korrante bat sortu zen, jatorrizkoa baino askoz erradikalagoa eta heretikoagoa: Kortxeleko Mamuk (inoiz Illun-minati moduan ezagutuak). Inazio Loiolakoaren jatorria Ondarroan zegoela defendatzea zen horien misio bakarra, kosta ahala kosta, zuhurki, jakina. Baina 1622. urteko martxoaren 12an, Inazio santu aitortu eta gero egin zuten parrandan, pertsonaia berri bat agertu zen Kortxeleko mamuen oholtzan: Leocadio de Urquizu (Ondarroa, 1600-1622). Honek zioena zera zen: ez Inazio Deuna bakarrik, baizik eta Jesukristo eta bere hamabi apostoluak ere ondarrutarrak zirela.

Leokadiri buruz, ezer gutxi dakigu. Ondarroan jaioa zen, 16 urterekin Jesusen Lagundian sartzeko ikasketak hasi zituen. Inazio kanonizatu zuten eguneko ospakizunetan ayahuasca errazioa bikoiztu egin zuen eta bere tesia garrasika zabaltzen hasi zen Loiolako Santutegiko korridoreetatik. Ez dakigu zer gertatu zen baina hurrengo egunean Ondarroako elizako pinakulu batetik zintzilik aurkitu zuten, taket bat bihotzean sartuta zuelarik. Kondairak dio Leokadiren arima erratia oraindik Ondarruko elizan galduta dabilela. Ez da hau Ondarroan esaten dena (Leokadi emakumea izango zen), Leintz jarraitzen ari gara.

Gero lau mendetako itzala. Badirudi Rosacruz, masoi, iluminati eta beste talde sekretu askorekin mantendu zituztela harremanak, baina ez ziren talde sekretuak izango guk horietaz jakingo bagenu.

Gezurra badirudi ere, esango genuke Kortxeleko Mamuk, Ondarroako illun-minatiak, gaur egun arte biziraun dutela. Azken albisteak hala adierazten du behintzat, K.W. Leintz erail duena abadea eta ondarrutarra izan omen da. Zein izango da hurrengoa?



AZKEN ORDUKOA BENITO ANSOLA ABADEA ASKE

Don Benitto aske utzi dute eta Don Kepa ondarrutarra gartzelaratu

"ILLUN-MINATI" sektako burua ote den salaketapean.

J.G.L. lekukoaren adierazpen berria: "hondartzako gerran, edurtzan, betaurrekuak galdu nebazan. ez neban ondo ikusi asesinua. pentsaten egon naiz eta don Benitto ezin leike izan ze baritonuaren ahotsagaz azpijan eukan gizonari kantatzen ibili zan :



"haaarrapaatzeen baaazaaaiituut,
haaarraapaatzeeen baaazaaaiituut,
joo taaa beeertaaan hiiilkoo zaaaituut



"Despues de visto, todo el mundo listo" dio Gaztela herriko esaerak. Orain bai, dena ulertzen dugu. Kortxeleko mamu sektakoek bazekiten Iñigo Zavalaren aitormena egon bazezgoela, baina ez ziren gai izan topatzeko. Aurkitzea eta suntsitzea zen euren misioa. Leintzek oharkabean illun-minatien alarmak piztu zituen. Kurikeko bigarren zenbakian idatzitakoak zerbait aurkitzeko zorian zegoela iragartzen zuen. Seguruenik Leintz Santa Ana kaperan Kortxeleko mamuren batekin geratu zen ikertuta zuena baieztatzeko. Ez zekiena zen, Miguel Ibasetaren antzera, sekretua mantentzeko edozer egiteko prest zegoela. Azkarrak izan zen Leintz, denbora-kapsulan orri zuriak baino ez zituen eraman, baina ez behar bezain azkarrak bizia galdu baitzuen.

Hala ere, ezin dugu sinestu gure parrokoa izan denik hiltzailea. Ondarroakoa da, baina ez jesuita. Okerren bat egongo da, zuhurrak izan behar dugu eta Ertzaintzari utzi bere lana betetzen.

